

# Kristau demokraten nazio-arteke antolaketa Istori apur bat eta ideia batzuek

Lengo astean Sozialisten Nazio-artekearen eun urtebetetzea zala ta Nazioarteke horren gainean itzegin nuen, orain, lenengo aldiz Ameriketarik kristau demokrata den lendakari bat izango duan ontan kristau demokraziaren nazio-arteke antolaketa nolakoa dan ta be-

re dotriña zertan dagoan esatea egokia dala fruiditu zait.

## SOZIALISTAK BAINO BATASUN GUTXIAGO

Zerbait ageri zen lengo astean, alegia, sozialisten batasun txikia nazio-arteke arazo askoetan. Sozialistak ordea kristau demokraten aldemenean oso batasun aundia daukate. Hori da ikusten dana esate baterako Europa'ko Parlamentuan Parlamentu hortan iru taldeetan banatzen dira diputadu guztiak: liberal, sozialista ta kristau demokratetan. Iru talde hoiestatik ugariena kristau demokratena da, ala ere batasun aundiens beren artean sozialistak dute.

Izan ere nere ustean kristau demokrata partidu bakoitza partidu bat ez ezik partidu askoen konfederazioa dala esan ditek. Edozeñi kristau demokraten partidueta esku-bi zaletik ari ta ezker ezker zalerafioko politiko era guzitiakok arkituko ditugu. Hori batez ere Europa'ko partidueta. Zer ikusirik besterik ez dugu Italia'ko kristau demokraten artean zer pasatzen dan.

## NOLA SORTU ZAN

Alemania alde batera uzten baldin badugu gela gurenetan parti-

du hauek katolikoak osatuta daude. Aieran politikari parte artu nai zuten katolikoek partiduia izan zen eta izaten jarraitzen du gela. Baina lenengo aldiz katolikoak politikari parte artzean ez zuten kristau demokratik errega defenditzen, gainera demokraziak ta Frantzia'ko Erreboluzioak ekarri zituzten askatasunak onartu zituzten katoliko hauek. Gainera, dana aitortu bearra dago, askotan beñepini katolikoak partidu hauek sortu zituzten Eleizaren interesak defenditzeko modurik egokiena bezela nazio bakoitzeko kontestuan.

Munduko bigarren gerrateraño ez zuten albeste indar izan partidu hauek. Bakar bakarrik Alemaniako Zenitum izena zuan katolikoek partiduak eta bear bada Holanda'koak.

## 1945'GNA. EZKEROTIK

Ez dira oraingoxeak katoliko liberalak. Liberalismoa sortu bezñi laister sortu ziran liberalismo onartu zuten katolikoak, baina orainutsu arte oso baztertuak eta gutxiuak egonak dira liberal hoi katolikoek artean. Konserbadore ziran katolikoentzat liberal hoiak besteak baina gaitzogoak ziran.

Katoliko oiek burrukarik audienak Frantzia'n izan zituzten eta bear bada an sortu zan gaurko kristau demokraten arte. Lacordaire ta Lammenais'en izenak ezin ahaztu ditekunik dira gaurko kristau demokratentzat.

Ala ere, lenago esan bezela, munduko bigarren gerrates bukatu arte Europa'ko politikari etsuten indar aundirik kristau demokraten partiduak. Baina gaurko Europa'n kristau demokratik indar aundienetako bat dira, Austria, Italia, Belgika ta Luxemburgo'n sozialistekin batera gubernu osatzen dute. Holanda ta Alemania'n berriz liberalak.

Gerra bukatu ta lenengo aldiz izan ziran elezioetan jende askoek botua eman zien kristau demokratik komunismoaren bildurrez. Izan ere jendeak zera pentsatzen zuan, naiz eta kristau demokratik ekonomia ta gizarte programa oso aurreratua eduki erlijio baten dotriña edukitzeak legunago egingo zituela. Ta jendearen ueste ortan dago kristau demokratiaren prolemarik aundiena.

## ZUZENDARIAK EZKERERA TA ELEKTORAK ESKUBIRA

Europa'ko politikaren joera begiratzen badugu bereala ikusiko dugu gero ta geroago kristau demokraten ta reformista diran sozialisten arteko diferentziak txikiagoak dirala. Ez baidu kristau demokraziak ekonomiaran gainean dotriña jakinik ta pikkanaka pikkanaka sozialismoak defenditzen duan dotriñarik bereganatzen joan da. Baina hori zuzendari ta militanteen artean bakarrik, ez elektore ta aukeratzailleen artean. Partidu hauekako militanteak eta zuzendariak gelemean ezkerrean jotzen dute, elektoreak, partidu hauekako elektoreak jakina, eskubira. Ta eskubi aldeko klientela hau beste partiduren batek eramanen duanean zero makaladuta gelditzen da kristau demokrazia. Hori da Frantzia'ko kristau demokraziari gertatzen zaiena, M. R. P. izeneko partiduari. De Gaulle'n kontra

azaltzen dan bakoitzean elezioetan boto asko galtzen ditu.

## JACQUES MARITAIN'EN ITZALA

Kristau demokraziaren itzala gela bat Jacques Maritain'engandik dator. Bai emen Europa'n eta batez ere Amerika'n. Ba dirudi gaur egunean ea kristau demokraziaren dotriña zeliñ dan galdetu ezkerko personalismoa dala erantutan bearko litzakela. Personalismoa, bere politika ta pentsamentuaren gizon persona tengan dagolako ta politika guztia berarentzat persona hori zabalteko ta zaintzeko egina dagoela dirudillako. Pentsametu horre inustrala Maritain'en liburuetan arkituko dugu. Estaduenaren, gizartearen, agintearen, gizonaren konpezioa kristau pentsalarien artean ondoen pentsatu ta zabaldu duana dudarik gabe Maritain izan da ta or dute kristau demokratik beren iturria.

Gainera kontuan izan dezagun Amerika'n. Ego aldeko Amerika'n kristau demokrazia intelektualen artean jalo dala ta intelektual hoiak gela landu ditua Maritain izan dela.

## N. E. I. IZENEKO TALDEAK

1947'gna arte etziran elkartu ta elkar ikusi Europa'ko kristau demokrata partiduak. Urte hortan Paris'en bildu ziran Europa'ko kristau demokraziaren gizonik aundienak eta Nazio-arteke Talde Berriak (Nouvelles Equipes Internationales) sortu zituzten. Schuman, De Gasperi ta Adenauer zi-



Allende Chile'ko sozial-komunisten lendakari-gai zena.

ran beste batekin talde hoiak oheretako lendakariak.

1956'gna arte ez ziran elkartu mundu guztiko kristau demokratik. Hauen arteko ta idelak ezagutzeko egiten dituzten bilera batzuek baizik.

## KRISTAU DEMOKRATAK AMERIKA'N

Beraz kristau demokrazia Europa ta Amerika'n bakarrik arkitu dezakegu. Amerikan Europa'n baino beranduago sortua da, ta orain Frel kristau demokraziak Chile'ko lendakari izabazterakoan lortu dute lenengo irabazte aundia. Venezuelan ere indar aundia dute, inportantzia bigarren partidu baldira an, Peru, Argentina ta Uruguay en ere poliki poliki indarra artzen dijote.

# MUNDUAN esaten DANA COMBAT

U. R. S. S. eta U. S. A.'ren artean elkartasuna?

U. S. A. ta Errusiaren artean gero ta geroago lokarri estuagoak biltzen ari diran honetan, eta lokarri hoiak bi estadietako zuzendarien arteko artueman zuzenetan azalduko diranean, bi hoiaren artean kidesatun bat sortuko da, mundu guztia menderatzeko duan arriskuzko kidesatasuna.

## NEW YORK Herald Tribune European Edition

Togliatti'ren urrangoa ain azkarra ote?

Jakingarria litzake jakitea ea oraingo Italia'ko komunisten zuzendaritza lengo Togliatti'ren bezin azkarra izango dan. Togliatti'ren urrangoak aukeratzuten duan jokabideak zer ikusi aundia izango du datorren urtetako Italia'ren bizitzan eta joeran.

## Le Monde

Orain dala ogeita bost urte

Munduko bigarren gerratea astean urtebetetzea gogoratzerakoan han dio: "Gaur egunean ere eskuetako beatzekin kontatu ditezke gizonaren eskubideak benetan eta zintzo betetzen dituzten estadiak".



Frel, Chile'ko lendakari berria, kristau demokraziakoa

## NAZIO-ARTEKO UNEA

### Erreboluzioa libertadearen barruan

Naiko pentsakizun ematen dute Chile'n izan berriak diran elezioak.

Asko poztu naiz Frel kristau demokratik irabaztearekin, hori Chile'zentzat gauzik onena zela uste nuelako, baina aia ere gauz batzuek argitu bear dirala uste dut.

Lengoz zorionik bereonak Chile'ko erritari ta Chile'ko sozial-komunistek demokraziaren jokua onartu ta errespetatu dutelako. Ez dago eskubiderik egnerokoetan irakurtzea, albeste aldiz irakurri dugun bezela, sozial-komunista hoiak inpernuko etsalak baino ekerragoak bezela tratatuak. Demokraziaren jokua onartu dute, joku hortan parte artu ta galdin egiten dute ta gaitzen jakin dute. Hoiak irabazi ezkerko bereala diktadura jarri zezakitenik demostratu bear dan gauza zan. Nai izan ezker ere ez zuten hoi egiterik ahal izango. Minak nazionalizatu nai zituzte ta, hori ala da marxismoa? Ez dut uste Frel bera ere minen nazionalizazioaren kontrakoa danik, bazik eta nazionalizazio horrek ekonomian ekarri lezazken ondoren txarren kontrakoa.

Pozik nago Frel jaunak irabazi ditualako, erreboluzioa libertaderik gabe egin nai ez dualako, esta ere libertadea erreboluziorik gabe eutsi nai ez dualako. Pozik, nai izatea ta ahal izatea berdinak ez dirala konturatu dalako.

Baina bildur dut. Bildur amerikano kapitalistak poztu diralako. Bildur reaktionario guztiak poztu diralako. Ta hortan dago Frel jaunaren arriskua: komunismoaren kontrakoa dala ta erreboluziorik ez egitea. Kapitalisten eskutetan litoztea.

Orain du garaia kristautasuna erreboluzioarekin eta justiziarekin asarre ez dagola jakin erazitzeko, justizia zabalitzeko, erreboluzioa egiteko diktadura bearrik ez dagola jakin erazitzeko, prolemak dato batzuek alde batera utzita ez dirala konpontzen jakin erazitzeko, demokraziaren ete erreboluzioaren problemari soluzioa arkitzeko dato bat bazterrean utzi bearrik ez dagola jakin erazitzeko.

Betela, hori egiten ez baldin badu ohea zen besteak, Allende'nak, sozialistak, komunistak, marxistak, inpernuko etsalak berarekin Chile'ko elezioak irabaxtea.

RIKARDO ARREGI